LEHIAKETA PUBLIKOA, Galdakaoko (Bizkaia) Ospitalerako izango den Kontsumo eta Berjarpenerako Osasunbide materialak (Erreaktiboak eta Antzekoak) erosteko dena. 10089

LEHIAKETA PUBLIKOA, Galdakaoko (Bizkaia) Ospitalerako izango den Kontsumo eta Berjarpenerako Osasunbide materialak (Erreaktiboak eta Antzekoak) erosteko dena. 10089

CONCURSO PUBLICO para Adquisición Material Sanitario de Consumo y Reposición (Reactivos y Análogos), con destino al Hospital de Galdakao (Bizkaia). 10089

CONCURSO PUBLICO para Adquisición Material Sanitario de Consumo y Reposición (Reactivos y Análogos), con destino al Hospital de Galdakao (Bizkaia). 10089

## Beste zenbait Iragarpen Ofizial
## Otros Anuncios Oficiales

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

7045/91 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, Herrilan Sailarena, «BI-500 errepidearen 21,100. k.g. eta 27,960. k.g.aren arteko taiuketaren zuzenketa eta zoladura egiteko proiektua»ren burutzapenak ukitu ondasun eta eskubideak atzemateaz aurretiazko aktak egiteko datak adierazten dituena. 10090

**DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA**

ORDEN FORAL N. 7045/91, de 11 de diciembre, del Departamento de Obras Públicas, por la que se señalan fechas para el levantamiento de las actas previas a la ocupación de los bienes y derechos afectados por la ejecución del «Proyecto de construcción de rectificación de trazado y pavimentación de la carretera BI-500, entre el P.K. 21,100 y el P.K. 27,960» 10090

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**GARRAIO ETA HERRILAN SAILA**

**4012**

700/1991 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Burnibidearen Euskal Museoa sortuz eta arautuz.

Bereziki burnibideari buruzko museoa egiteko adinako garrantzia izan du burnibide-alorrak Euskadin. Joan den mendeko hirurogeigarren hamarkadan azaldu ziren lehen trenbideak Euskadin, Espainiako sarerik trinkoena sortzeaz gain, garapen industrialaren eta gure gaurko gizartearen egituraren motore bilakatu zirela; horregatik, hauen historia berreskuratzean geurea ere eskuratzen dugu. Burnibideak ez zizkion euskal meategi eta industriei merkatu berriak zabaldu bakarrik egin; bere bezero garrantzitsuenetakoa ere bihurtu zen.

Azken urteotan burnibide-alorrean izandako aldaketen ondorioz gaurreguneko egoerarekin bat datozen ibilgailu eta sistemek ordezkatu dituzte ustiaketa hauetako osagai asko, eta horrek tren zaharrak eta trenbideko lanabesak bezalako gure historia gertueneko osagai baliogarrien zatiketa etengabea ekarri du, jarrera horrek zerikusi handirik ez duelarik herri-agintarien ihardunen antolaketa printzipioetarikoa den Kultur Ondarearen babes, aldezpen eta aberastearekin.

Aipatu printzipioa betetzeko, Autonomi Estatutoaren 10.20 atalean Euskal Autonomi Elkarteari artxiboak, bibliotekak eta museoen alorrean ematen zaion eskuduntza esklusiboa erabiliz, eta Euskal Kultur

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS**

**4012**

DECRETO 700/1991, de 17 de diciembre, sobre creación y régimen del Museo Vasco del Ferrocarril.

El sector ferroviario tiene y ha tenido históricamente en el País Vasco entidad suficiente para la creación de un Museo específicamente dedicado al ferrocarril. En efecto, en la década de los sesenta del pasado siglo comenzaron a funcionar en Euskadi los primeros ferrocarriles, creando la red más densa de España, convirtiéndose en motor del desarrollo industrial y artífice por tanto de nuestra actual sociedad, por lo que recuperar su historia es recuperar la historia más reciente del pueblo vasco. El ferrocarril no sólo abrió los mercados a la industria y minería vasca, sino que también fue uno de sus principales clientes.

La rápida evolución sufrida por el ferrocarril en los últimos años ha supuesto la sustitución de numerosos elementos propios de su explotación por vehículos y sistemas acordes con los tiempos actuales, provocando el desguace sistemático de valiosísimos elementos de nuestra historia más reciente como son los viejos trenes y herramientas ferroviarias, actitud de difícil congruencia con uno de los principios ordenadores de la actuación de los poderes públicos cual es la protección, defensa y enriquecimiento del patrimonio cultural.

Para dar cumplimiento al referido principio, en ejercicio de la competencia exclusiva en materia de archivos, bibliotecas y museos de su titularidad, que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco

Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1991 Legean ohartemandakoan oinarrituz, beharrezkotzat jotzen da Burnibidearen Euskal Museoa sortu eta honen iharduera arautzea.

Gure Autonomi Elkarteak bereganatutako eskurantza erabiliz, Dekretu honek Burnibidearen Euskal Museoa sortzeko xedea du, Euskadiko Burnibide-Ondare Historikoa batu, zaindu, aztertu eta erakusteko helburuarekin.

Euskal Autonomi Elkartearen titularitateko Burnibidearen Euskal Museoa Garraio Zuzendaritzaren pean dagoen Zerbitzu bezala jaio da, Euskadiko Nazio Mailako Erakustetxeetariko bat izango dela.

Museoaren helburu eta eginkizunak, ezarriko zaion erregimen juridikoa eta izango dituen kudeaketa ihardute-sail biak zehazten dira Dekretuan zehar, hots, Zuzendari-Zaindaria eta Zaingo-Batzordea.

Proposatzen den arau honen finantzaketari dagokionez, bada honi erantzuteko lain den diru-izendapena Euskal Autonomi Elkartearen 1991.erako Aurrekontu Nagusietako 11130 Garraio Antolaketa Programan.

Ondorioz, Garraio eta Herrilan Sailburuak proposatuta, Lehendakaritzaren onarpena jasota eta aurrez Jaurlaritza Kontseiluak 1991ko abenduaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– 1.– Burnibidearen Euskal Museoa sortzen da, gizartearen zerbitzurako eta bere garapenerako erakunde iraunkor bezala, Autonomi Elkarteko Burnibide Ondare Historikoaren ikerketarako, eta baita honen azterketa, hezkuntza eta astirako erosi, zaindu, jakinarazi eta erakusteko ere.

Helburu honetarako burnibideen alorreko osagarri hauek hartuko dira Euskal Autonomi Elkarteko Burnibide Ondare Historikotzat: material mugikorra, azpiegiturak, tresneria, agiriak eta, duten aintzinatasuna, historia edo teknikazko ezaugarri bereziak direla eta, zerrendaratu eta gorde beharrekoak direnak.

2.– Burnibidearen Euskal Museoa Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren titularitatekoa da, eta Nazio Mailako Erakustetxe-Erapidetzaren barruan ezartzen da, Euskal Kultur Ondareari Buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 93. atalaren lehenengo idazatian eta gainontzeko xedapen bateragarrietan ezarritakoari jarraituz.

3.– Garraio eta Herrilan Saileko Garraio Zuzendaritzaren pean kokatutako Zerbitzu bezala sortzen da Burnibidearen Euskal Museoa.

*2. atala.*– Burnibidearen Euskal Museoak Zumarragatik Zumaiarako Bigarren mailako Trenbide zaharraren (Urolako trena) instalazioetan izango du bere egoitza, Azpeitiako (Gipuzkoa) geltokian.

*3. atala.*– Bere bilduma eta museografi ondasunei, iharduera-arauei, lanariei eta gainontzeko alderdiei dagokienez, Dekretu honetan, Euskal Kultur Ondareari Buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean eta Euskal Autonomi Elkartearen titularitateko museoei ezargarri izan dakizkien gainontzeko xedapenetan jasotakoek

conforme al artículo 10.20 del Estatuto de Autonomía, y al amparo de lo previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, se considera necesaria la creación y regulación del funcionamiento del Museo Vasco del Ferrocarril.

En ejercicio de la competencia asumida por nuestra Comunidad Autónoma, el presente Decreto tiene por objeto la creación del Museo Vasco del Ferrocarril, con el fin de reunir, conservar, estudiar y divulgar el Patrimonio Ferroviario Histórico de Euskadi.

El Museo Vasco del Ferrocarril, titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se configura como Servicio de la Dirección de Transportes, integrado en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi.

En el Decreto se definen los fines y las funciones del Museo, el régimen jurídico que le es aplicable, así como sus dos órganos de gestión, el Director-Conservador y el Patronato.

En cuanto a la incidencia financiera de la regulación propuesta, para darle cobertura existe crédito suficiente en el Programa 11130, de Ordenación del Transporte, de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1991.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Transportes y Obras Públicas y con la aprobación de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de diciembre de 1991,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– 1.– Se crea el Museo Vasco del Ferrocarril, como institución permanente al servicio de la sociedad y de su desarrollo, abierto al público, para la investigación del Patrimonio Ferroviario Histórico de la Comunidad Autónoma, así como para su adquisición, conservación, comunicación y exhibición con fines de estudio, educación y disfrute.

A este efecto, se entiende por Patrimonio Ferroviario Histórico de la Comunidad Autónoma vasca aquellos elementos relacionados con el ferrocarril: material móvil, infraestructuras, utillaje, documentación y demás que por su antiguedad, historia o especiales características técnicas deban ser objeto de inventariado y preservación.

2.– El Museo Vasco del Ferrocarril es de titularidad de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se integra en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi, en los términos dispuestos en el párrafo primero del artículo 93 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y demás disposiciones concordantes.

3.– El Museo Vasco del Ferrocarril se configura orgánicamente como Servicio adscrito a la Dirección de Transportes del Departamento de Transportes y Obras Públicas.

*Artículo 2.*– El Museo Vasco del Ferrocarril tiene su sede en las instalaciones del antiguo Ferrocarril Secundario de Zumárraga a Zumaia (Ferrocarril del Urola), en la estación de Azpeitia (Gipuzkoa).

*Artículo 3.*– El Museo Vasco del Ferrocarril se regirá en cuanto a su colección o fondo museográfico, régimen de funcionamiento, personal y demás aspectos, por lo dispuesto en el presente Decreto, por la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y por las demás disposiciones que resulten de aplicación

arautuko dute Burnibidearen Euskal Museoa.

*4. atala.*– Honako hauek dira Burnibidearen Euskal Museoaren eginkizunak:

a) Bertan dituzten ondasunak zaindu, sailkatu, berriztatu eta erakustea.

b) Bertako bildumaren eta Euskal Auonomi Elkartearen Burnibide Ondare Historikoaren inguruko ikerketa.

c) Bere izaerarekin bat datozen erakusketa zientifiko eta zabaltzaileak antolatzea aldian-aldian.

d) Bertan jasotako ondasunei buruzko katalogo eta monografiak landu eta argitaratzea, eta baita gai berari buruzko lanen inguruko ikerketak bultzatu eta argitalpenak suztatzea ere, eta, orohar, bere edukiaren inguruko zabalkunde-iharduna burutzea.

e) Museoaren egoitza eta Loiola bitartean tren historiko bat ustiatzea.

f) Euskal Herriko burnibideen historiarekin zerikusia duten agiri oro biltzeko trenbidezko garraioari buruzko agiritegia sortzea.

g) Euskadiko Nazio Mailako Erakustetxe-Erapidetza eratzen duten gainontzeko museoekin eta beste kultur erakunde batzuekin elkarlan eta lankidetza harremanak finkatzea, indarrean dagoen legerian ezartzen diren neurrian.

h) Museoaren helburuak lortzea jarraitzen duten beste eginkizun oro.

*5. atala.*– 1.– Museoaren Zuzendari-Zaindariaren lanpostua lanpostuen zerrendan jasotako eran eta betekizunez beteko da.

2.– Honako hauek izango dira Zuzendari-Zaindariaren eginkizunak:

a) Museoaren ihardunen garapena eta eginkizunak bultzatu eta hauetaz arduratzea.

b) Museoko lanarien zuzendaritzaz arduratzea.

c) Museoaren iharduneko ondareen bilketa, antolaketa, dokumentazio, zainketa eta zabalkuntzaren ardura eta erantzuna.

d) Museoaren segurtasunaz eta bai eraikina eta bai instalazioak ere zaintzeaz arduratzea.

e) Zaingo-Batzordeari Bilduma antolatzeko erizpide nagusiak aurkeztea, honen erakusketa iraunkorrerako.

f) Museoko ondarearen zati izan daitezen, ondasunak eskuratzeko proposamena egitea, horretarako beharrezko harremanak izanez.

g) Aldibaterako erakusketak antolatzeko proposamena luzatzea Zaingo-Batzordeari, eta hauen gainbegiraketa.

h) Beste museoekiko eta antzerako erakundeekiko harremanak bultzatzea.

i) Urteko lehen hiru hilabeteen barruan edo Aurrekontuen Legea onartzen denetik kontatzen hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan, urtean zeharrerako ekintza egitamua eta ihardunerako proiektu edo programa zehatzak Zaingo-Batzordeari aurkeztea, honek onar ditzan.

j) Urtero, abenduan, burututako ekintzen urteko Txostena aurkeztea Zaingo-Batzordeari.

a los museos de titularidad de la Comunidad autónoma de Euskadi.

*Artículo 4.*– Son funciones del Museo Vasco del Ferrocarril:

a) La conservación, catalogación, restauración y exhibición ordenada de sus fondos.

b) La investigación en el ámbito de su colección y del Patrimonio Ferroviario Histórico de la Comunidad autónoma vasca.

c) La organización periódica de exposiciones científicas y divulgativas acordes con su naturaleza.

d) La elaboración y publicación de catálogos y monografías de sus fondos, así como el fomento de la investigación y la promoción de la publicación de obras referentes a la materia y, en general, el desarrollo de una actividad didáctica respecto de su contenido.

e) Explotar un tren de carácter histórico entre la sede del museo y la estación de Loiola.

f) Crear un centro de documentación del transporte ferroviario en el que se reunan todo tipo de documentos relacionados con la historia del ferrocarril en el País Vasco.

g) Establecer relaciones de cooperación y de colaboración con el resto de los museos integrantes del Sistema Nacional de Museos de Euskadi y con otras instituciones culturales, en el marco de lo dispuesto en la legislación vigente.

h) Cuantas otras funciones conduzcan al logro de los objetivos del museo.

*Artículo 5.*– 1.– El Director-Conservador del Museo se proveerá en la forma y con los requisitos establecidos en las correspondientes relaciones de puestos de trabajo.

2.– Son funciones del Director-Conservador:

a) Impulsar y dirigir el ejercicio de las funciones y el desarrollo de las actividades del Museo.

b) Ejercer la dirección funcional del personal del Museo.

c) Velar y responder del funcionamiento del Museo en lo referente al inventario, catalogación, documentación, conservación y difusión de los fondos.

d) Velar por la seguridad del Museo y por el correcto mantenimiento tanto del edificio como de sus instalaciones.

e) Presentar al Patronato los criterios generales de ordenación de la colección para su exposición permanente.

f) Proponer la adquisición de bienes destinados a formar parte de los fondos museísticos, promoviendo las gestiones que sean precisas a tal fin.

g) Proponer al Patronato la organización de exposiciones temporales y supervisar su realización.

h) Impulsar las relaciones de cooperación con otros museos y entidades afines.

i) Presentar al Patronato, para su aprobación, un Plan anual de actividades, dentro del primer trimestre del año, o en los tres meses siguientes a la aprobación de la Ley de Presupuestos, así como proyectos o programas específicos de actuación.

j) Presentar al Patronato, en el mes de diciembre de cada año, una Memoria anual de las actividades desarrolladas.

k) Bere ekimenez edo Zaingo-Batzordeak proposatuta, burnibide alorreko kurtur ondasunen izendapenerako prozedura ireki dadila eskatzea.

l) Araubideak izenda diezaizkion beste edozein eginkizun.

3.– Aurreko apartaduan jasotako eginkizunak Garraio Sailburuorde eta Zuzendariaren gain-begiraketa eta koordinaketaren kaltetan gabe ulertuko dira.

*6. atala.*– Burnibidearen Euskal Museoaren Zaingo-Batzordea sortzen da, Museoaren ihardun eta kultur ekintzen bultzatzaile eta Garraio eta Herrilan Sailaren ahoiku-emale bezala.

*7. atala.*– Honako hauek izango dira Zaingo-Batzordearen eginkizunak:

a) Museoak garatu beharreko ekintzei buruzko aholku ematea Garraio eta Herrilan Sailari.

b) Helburuak finkatze eta erizpide museistikoak mugatze lanetan laguntzea.

c) Museoaren Zuzendaritzari jagote-politikak finkatzen laguntzea.

d) Museoaren Zuzendaritzari bereak dituen eginbeharretan laguntzea.

e) Ekintzen urteko egitamua onartzea.

f) Museoak jarraitzen dituen helburuen zabalkundean eta bertan burutzen diren ekintzen eta maila guztietan duten hedakuntzan laguntzea.

g) Araubideak izenda diezaizkion beste edozein eginkizun.

*8. atala.*– 1.– Honako hauek izango dira Burnibidearen Euskal Museoaren Zaingo-Batzordearen kideak:

a) Lehendakari: Garraio eta Herrilan Sailburua.

b) Lehendakariorde: Garraio Sailburuordea.

c) Bokalak:

Kultura Ondarearen Zuzendaria.

Garraio Zuzendaria.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A. herribaltzuaren Kontseilari Delegatua.

Euskadin dauden Burnibideen Lagun Elkarteetako ordezkari bat, hauek proposatuta Garraio eta Herrilan Sailburuak izendatuko duena.

Bere lanak burnibidearekin zuzeneko edo nolabaiteko zerikusia izan dezan euskal kultura eta artearen ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari entzun eta gero, Garraio eta Herrilan Sailburuak izendatuko duena.

Museoaren Zuzendari-Zaindaria izango da Zaingo-Batzordearen Idazkari, hizpidedun baina hautespiderik gabe.

2.– Zaingo-Batzordeko kide izatea ohorezkoa eta dohainikoa izango da.

3.– Lehendakariak eskatuta datorren edonork har dezake parte Zaingo-Batzordearen bilkuretan, kide ez izanik ere, hizpidedun eta hautespiderik gabe.

*9. atala.*– 1.– Zaingo-Batzordea Museoaren egoitzan bilduko da, edo kideen gehiengoak erabakitzen duen

k) Solicitar la apertura, por propia iniciativa o a propuesta del Patronato, del procedimiento de calificación de bienes culturales en el ámbito ferroviario.

l) Cuantas otras funciones le sean encomendadas o le atribuya el ordenamiento jurídico.

3.– Las funciones enumeradas en el apartado anterior, lo serán sin perjuicio de la competencia de superior control y coordinación encomendadas al Viceconsejero y al Director de Transportes.

*Artículo 6.*– Con el fin de impulsar las actividades culturales y funcionamiento del Museo y de asesorar al Departamento de Transportes y Obras Públicas, se crea el Patronato del Museo Vasco del Ferrocarril.

*Artículo 7.*– El Patronato del Museo Vasco del Ferrocarril tendrá como funciones:

a) Asesorar al Departamento de Transportes y Obras Públicas respecto a las actividades que ha de desarrollar el Museo.

b) Colaborar en la definición de los objetivos y en la elaboración de criterios museísticos.

c) Colaborar con la Dirección del Museo en la definición de sus políticas de preservación.

d) Colaborar con la Dirección del Museo en la realización de las tareas que le son propias.

e) Aprobar el plan anual de actividades.

f) Contribuir a la difusión de los fines que animan al Museo, así como de las actividades realizadas por el mismo y su proyección a todos los niveles.

g) Cuantas otras funciones le sean encomendadas o atribuidas por el ordenamiento jurídico.

*Artículo 8.*– 1.– Integran el Patronato del Museo Vasco del Ferrocarril los siguientes miembros.

a) Presidente: El Consejero de Transportes y Obras Públicas.

b) Vicepresidente: El Viceconsejero de Transportes.

c) Vocales:

El Director de Patrimonio Cultural.

El Director de Transportes.

El Consejero Delegado de la sociedad pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.

Un representante de las Asociaciones de Amigos del Ferrocarril existentes en Euskadi, que será nombrado por el Consejero de Transportes y Obras Públicas, a propuesta de las mismas.

Un representante de la cultura y el arte vasco cuya obra esté directa o indirectamente vinculada al mundo del ferrocarril, el cual será nombrado por el Consejero de Transportes y Obras Públicas, oído el Departamento competente en materia de Cultura del Gobierno Vasco.

Será Secretario del Patronato, con voz pero sin voto, el Director-Conservador del Museo.

2.– Todos los miembros del Patronato lo serán a título honorífico y gratuito.

3.– A las reuniones del Patronato podrán asistir, con voz pero sin voto, cuantas personas sean invitadas a requerimiento del Presidente, aún y cuando no formen parte del mismo.

*Artículo 9.*– 1.– El Patronato se reunirá en los locales del Museo, o donde se decida por mayoría de sus

tokian, Lehendakariak deituta, ohizko bilkuran, urtean gutxienez birritan, eta ohizkanpoko bilkuran, kideen herenak, Lehendakariak edo Zuzendari-Zaindariak eskatuta, behar adina aldiz.

2.– Zaingo-Batzordeak osoko-bilkuran edo batzordetan banatuta ihardun dezake, zerbitzuaren beharren arabera.

3.– Atal honetan oharteman gabeko ondorioetarako, Zaingo-Batzordearen ihardunak eta erabakiak hartzeko bideak Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legearen I Idazpuruko II Atalburuan ezarritakoa bete beharko du.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu honetako bosgarren atalaren lehen zatian ezarritakoari jarraituz Museoaren Zuzendari-Zaindaria izendatzen ez den bitartean, eginkizunak behin-behingoz betetzeko apirilaren 11ko 730/1986 Erret Dekretuaren 4.2.b) atalean jasotakoa eran egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Garraio eta Herrilan Sailburuari ematen zaio aginpidea bere eskuduntzen barruan Dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezko xedapen guztiak emateko.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharmunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko abenduakak 17.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Garraio eta Herrilan Sailburua,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

miembros, en sesión ordinaria, convocada por su Presidente, con una frecuencia de al menos dos veces al año y, en sesión extraordinaria, cuantas veces sea necesario a petición de un tercio de sus miembros, de su Presidente o del Director-Conservador del Museo.

2.– El Patronato podrá funcionar en pleno o en comisión, según las necesidades del servicio.

3.– En lo no previsto en este artículo, el régimen de funcionamiento y de adopción de acuerdos del Patronato se ajustará a lo establecido en el Capítulo II del Título I de la Ley de Procedimiento Administrativo.

DISPOSICION TRANSITORIA

En tanto no se proceda al nombramiento del Director-Conservador del Museo conforme a lo señalado en el párrafo primero del artículo quinto del presente Decreto, para la cobertura temporal de sus funciones se estará a lo dispuesto en el art. 4.2.b) del Real Decreto 730/1986, de 11 de abril.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– En el ámbito de su competencia, se autoriza al Consejero de Transportes y Obras Públicas para dictar cuantas disposiciones fuesen necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Oposaketa eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4013

AGINDUA, 1991ko abenduaren 5ekoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Irakaskuntza Ertainetarako Irakasleen, Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasle Sailetakoak diren funtzionariak Lekualdatzeko deia egiten duena.

Irakaskuntza Ertainak eta Hizkuntzak ematen dituzten irakasle funtzionarien sailetako Lekualdatzeko Lehiaketei, 1991/92 ikasturtean konboka daitezenei alegia, aplika dakizkiekeen prozedura arauak ezartzeari

### DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

4013

ORDEN de 5 de diciembre de 1991, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca Concurso de Traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional así como del Cuerpo de Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

De conformidad con la Orden de 4 de diciembre de 1991, por la que se establecen normas de procedimiento, aplicables a Concursos de Traslados de los Cuerpos de funcionarios docentes que imparten Enseñanzas